



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urtarrilaren 28a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00018. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00149. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Mercosuren eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko tratatua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (4. or.).

—11-25/MOC-00004. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hagako Nazioarteko Auzitegia babestu dezan eta auzitegi horrek 2024ko urtarrilaren 26an eta uztailaren 19an taxututako irizpenak defenda ditzan. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsi du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00023. Galdera, Planetarioan izandako sutearen ondorioz aurreikusten diren ekintzei buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (6. or.).

—11-25/POR-00024. Galdera, Nafarroa turismoaren merkatuan ongi kokatzeari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (7. or.).

—11-25/POR-00025. Galdera, Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izateari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (7. or.).

—11-25/POR-00026. Galdera, errenta bermatua ikuskatzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andre-
ak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00027. Galdera, bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andre-
ak egin du (8. or.).

- 11-25/POR-00028. Galdera, Nafarroa osoa tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratzeko aukerari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00029. Galdera, Nafarroako ikastetxe batean terrorismoagatik kondenatutako pertsona bat irakasle modura kontratatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00030. Galdera, Trumpen administrazioak ezarri nahi dituen muga-zergei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00031. Galdera, energia-enpresa handien irabaziei karga kentzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00032. Galdera, omnibus dekretua indargabetu izanari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00033. Galdera, mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00034. Galdera, berdintasuneko agentearen lanbidean sartzeari buruzko lege proposamenari buruzkoa. Olga Chueca Chueca andreak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00035. Galdera, Osasunari buruzko foru legearen zirriborroa dela-eta zenbait kolektibok egingdako eskariei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00036. Galdera, Diputatuen Kongresuko azken bozketak milaka familia nafarengan izanen dituen ondorioei buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00037. Galdera, hiriarteko garraioaren arazoa konpontzeko neurriei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00039. Galdera, Steilas sindikatuak Auzitegi Gorenean Nafarroako PAI Legearen aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00040. Galdera, desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00041. Galdera, etxeko ospitalizazioan ospitaleratutako pazienteendako telemedikuntza-proiektuari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00042. Galdera, EBren eta Mercosur-en arteko akordioak Nafarroako nekazaritzaren sektorean izanen duen eraginari buruzkoa. Javier Ollo Martínez jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00043. Galdera, 2025etik 2029ra bitarteko bosturtekoaren oinarri-urtea gaurkotzeko epeei eta jarduketei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00045. Galdera, pentsioak igotzearekin zerikusirik ez duten neurriak aurrera ateratze aldera nafar pentsiodunak bahitu gisa erabiltzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00046. Galdera, jakiteko zein den gogobetetasun-maila Nafarroaren pertzepzio eta irudiari dagokienez. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00047. Galdera, FITUR 2025 azokari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00048. Galdera, omnibus izeneko Errege Lege-dekretuari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurea jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/LEY-00007. 2023ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina. Akats zuzenketa (19. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00018. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2025eko urtarrilaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Irene Royo Ortín andreak aurkeztu zuen eta 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168., 172.1 eta 173 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Nafarroako Foru Komunitateko gaikun-

tzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurralde Kohesiorako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamar egun balioduneko epe bat irekiko da, 2025eko otsailaren 12ko eguerdiko 12:00etan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 147. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00149. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko tratatua

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2025eko urtarrilaren 21ean onetsi zuen honako erabaki hau: "Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko tratatu". Hona erabakiaren testua:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Errefusatu egiten du Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko tratatua.

2. Espainiako Gobernuak premiatzen du Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko tratatua geldiaraz dezan eta ez dezan amore eman nekazaritzaren esparruan ezertan ere gehiago.

3. Espainiako Gobernuak premiatzen du ez dezan ez sinatu ez berretsi Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko tratatua.

4. Nafarroako Gobernuak premiatzen du berehala has ditzan Espainiako Gobernuaren aitzinean egin beharreko zuzemenak Europar Batasunaren eta beste herrialde batzuen arteko ezin

merkataritza-akordio motaren baldintzak berrikus-teko, "ispilu-klausulak" ezarri ahal izateko eta Europako ekoizleen eta munduko gainontzekoen arteko lehia leial eta bidezkoa bermatzeko.

5. Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion Nafarroako lehen sektorearen interesak defenda ditzan Europar Batasunean eta nafar ekoizleak babesteko neurriak har daitezzen exiji dezan, akordioak, baldin eta azkenean berresten eta onesten bada, izan ditzakeen ondorio negatiboan aitzinean.

6. Nafarroako Gobernuari agintzen dio txosten bat egin dezan, Elkartze-akordioak lehen sektorean eta nekazaritzako industrian izanen lukeen inpaktu errealari buruz, bertan jasota zer konpentsazio-neurri hartu beharko liratekeen tratatua onetsiko balitz.

7. Europako Batzordea premiatzen du Europako nekazaritza eta abeltzaintza babestuko duen Nekazaritza Politika Erkidea abian jar dezan eta Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen iraunkortasuna berma dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00004. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Hagako Nazioarteko Auzitegia babestu dezan eta auzitegi horrek 2024ko urtarrilaren 26an eta uztailearen 19an taxututako irizpe- nak defenda ditzan

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2025eko urtarrilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Hagako Nazioarteko Auzitegia babestu dezan eta auzitegi horrek 2024ko urtarrilaren 26an eta uztailearen 19an taxututako irizpenak defenda ditzan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1.- Hagako Nazioarteko Auzitegia babestu dezan eta auzitegi horrek emandako irizpenak aldeztu ditzan, bai 2024ko urtarrilaren 26koa, zein-
nean ondorioztatzen baita litekeena dela Israel
genozidioa egiten egotea, bai 2024ko uztailearen

19koa, zeinean ondorioztatzen baita Israel apartheid-krimenaren erantzulea dela.

2.- Nazio Batuen ebazpenak betetzeko konpromisoa berrets dezan eta ebazpen horiek betetzeko behar diren urratsak eman ditzan.

3.- Arrakalarik gabeko babesa eman diezaien Nazio Batuen Erakundeari eta haren agentziei –bereziki UNRWari–, urteak eta urteak baitaramatzate Israelek darabilen okupazio ilegala salatzen.

4.- Espainiako Gobernua premia dezan nazioarteko legedi indarduna betetzeko eta betearazteko betebeharraren arabera jardutera, berehalako su-
eten iraunkorra exiji diezaien gatazkaren parte dire-
nei eta Hagako Nazioarteko Auzitegiaren exijen-
tziak eta Nazio Batuen ebazpenak bete ditzan”.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00023. Galdera, Planetarioan izandako sutearen ondorioz aurreikusten diren ekintzei buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Planetarioan izandako sutearen ondorioz aurreikusten diren ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Lunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñeko Planetarioan izandako sutearen ondoren, Nafarroako Gobernuak jada adierazi du konprometituta dagoela gure erkidegoan, bai eta nazio mailan ere, erreferentea den espazio horrekin, zabalkunde zientifikoari eta bokazio zientifikoak sortzeari emana.

Departamentuak eta NICDOk zer egin nahi dute espazio horrekin?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-25/POR-00024. Galdera, Nafarroa turismoaren merkatuan ongi kokatzeari buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Nafarroa turismoaren merkatuan ongi kokatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Lunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Exceltur-ek Fitur 2025 azokan azaldu dituen datuen arabera –irabazi asmorik gabeko elkarte hori turismoaren balio-kate osoko enpresarik handienetako 30 enpresak osatzen dute–, Nafarroako turismo-sektorea bere hazkuntza sendotzen ari da.

Exceltur-ek orain dela gutxi ezagutarazitako datuak ikusita, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer balorazio egiten du Nafarroak turismo-merkatuan daukan posizio onari buruz?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-25/POR-00025. Galdera, Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izateari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Ezkabako gotorlekua memoriaren toki izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Espainiako Gobernuak orain dela gutxi iragarri zuenaren arabera, Ezkaba mendiko gotorlekua Memoria Toki bihurtuko da 2025 honetan, Memoria Demokratikoaren 2022ko Legearen babesean.

Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu behar dute instalazio horren erabilera memorialista ahalbidetzeko.

Zertan da Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko negoziazioa Ezkabako Gotorlekuaren erabilera memorialista ahalbidetuko duen lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/POR-00026. Galdera, errenta bermatua ikuskatzeari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, errenta bermatua ikuskatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan errenta bermatua dela-eta egiten den kudeaketari buruz Kontuen Ganberak egindako txostenaren eduki kezagarria ikusita, Chivite andreak eskatzen diogu argitu dezan zer plan zehatz daukan laguntza horiek sakonki ikuskatzeko eta bidegabeki kobratutako dirua itzultzen dela bermatzeko.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/POR-00027. Galdera, bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeari buruzkoa*ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Hezkuntza Departamentuak berriki iragarri du D ereduko Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako bi ikastetxe publikotan bi urteko gelak ezarriko dituela; Barañaingo Alaitz ikastetxean eta Antsoaingo Ezkaba ikastetxean, hain zuzen ere.

Zergatik erabaki da bi ikastetxe horietan 2 urteko gelak irekitzea?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/POR-00028. Galdera, Nafarroa osoa tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratzeko aukerari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroa osoa tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroa osoko biztanleria pairatzen ari den etxebizitza-larrialdia ikusirik,

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik orain edo aurrerago hasteko etxebizitza-merkatuaren egoerari buruzko informazioa lortzera bideratutako prestatze-prozedura, Nafarroa osoa tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratzeko aukera baloratze aldera?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/POR-00029. Galdera, Nafarroako ikastetxe batean terrorismoagatik kondenatutako pertsona bat irakasle modura kontratatzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroako ikastetxe batean terrorismoagatik kondenatutako pertsona bat irakasle modura kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak jakin ondotik terrorismoagatik kondenatutako pertsona bat irakasle modura kontratatua izan dela Nafarroako ikastetxe batean?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00030. Galdera, Trumpen administrazioak ezarri nahi dituen muga-zergei buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Trumpen administrazioak ezarri nahi dituen muga-zergei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urtarrilaren 20an, Donald Trumpek Estatu Batuetako presidente kargua hartu zuen. Trumpek hauteskunde-kanpainan agindutako artean, zenbait herrialdetarako muga-zergen igoera dago, farmazia, ibilgailuak edo nekazaritza eta elikagaiena bezalako sektoreetan. Sektore horiek funtsezkoak izanik Nafarroarentzat, ondoko galdera aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernuak nola egingen die aurre Trumpen administrazioak ezarritako balizko muga-zergei?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-25/POR-00031. Galdera, energia-enpresa handien irabaziei karga kentzeari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, energia-enpresa handien irabaziei karga kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ondorio izanen ditu Nafarroako Foru Komunitateko funtsetarako energia-enpresa handien irabaziei karga kentzeak?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-25/POR-00032. Galdera, omnibus dekretua indargabetu izanari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, omnibus dekretua indargabetu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu

ko Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urtarrilaren 22an bertan behera geratu zen omnibus Dekretua deiturikoa Diputatuen Kongresuan, Alderdi Popularraren, Voxen eta Juntsen aurkako botoarekin eta Unión del Pueblo Navararren abstentzioarekin.

Horrek ondorio garrantzitsuak izanen ditu herritarrentzat, oztopo baita pentsioen errealizaziorako, garraio publikorako laguntzetarako eta etxebizitzaren moratorietarako, besteak beste.

Ondorio kezkarri horiek direla-eta:

Nola egingen die aurre Gobernuak dekretu hori ez onartzeak herritarrei ekarriko dizkien ondorioei? Xede horretarako lankidetzan arituko al da Nafarroako gainerako erakunde publikoekin?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/POR-00033. Galdera, mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak hurrengo osoko bilkuran ahoz erantzun dezan:

Mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendei buruzko datuak jasanezinak dira; izan ere, urteak dira legeak ezarritakoa ez dela betetzen. Zer egingen du departamentuak legea betetze aldera?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/POR-00034. Galdera, berdintasuneko agentearen lanbidean sartzeari buruzko lege proposamenari buruzkoa

OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, Berdintasuneko agentearen lanbidean sartzeari buruzko lege proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pasa den astean ikusi genuen zein den Parlamentuaren jarrera UPNk aurkeztutako Berdintasuneko agentearen lanbidean sartzeari buruzko lege proposamena dela-eta. Gai horrek lotura du bai estatuko bai foru erkidegoko zenbait legerekin.

Zer jarrera eta zer asmo du Nafarroako Gobernuak gai hori dela-eta?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-25/POR-00035. Galdera, Osasunari buruzko foru legearen zirriborroa dela-eta zenbait kolektibok egindako eskariei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasunari buruzko foru legearen zirriborroa dela-eta zenbait kolektibok egindako eskariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasunari buruzko Foru Legearen zirriborroa dela-eta, zenbait kolektibok publikoki azal dutako eskakizunak entzun ondoren, zer jarrera du Osasun Departamentuak azal dutako eskakizun nagusi bakoitzari dagokionez?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/POR-00036. Galdera, Diputatuen Kongresuko azken bozketak milaka familia nafarrengan izanen dituen ondorioei buruzkoa

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Diputatuen Kongresuko azken bozketak milaka familia nafarrengan izanen dituen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2025eko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Milaka familia nafar babestu eta laguntzeko neurriak jasotzen dituen dekretu bat onesteko asmoz Diputatuen Kongresuan izandako azken bozketaren ondoren.

Zer jarrera du Gobernuak familia horienganako eraginari buruz?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

11-25/POR-00037. Galdera, hiriarteko garraioaren arazoa konpontzeko neurriei buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, hiriarteko garraioaren arazoa konpontzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko duzu, eta noiz hartuko duzu, hiriarteko garraioaren arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-25/POR-00039. Galdera, Steilas sindikatuak Auzitegi Gorenean Nafarroako PAI Legearen aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoari buruzkoa

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, Steilas sindikatuak Auzitegi Gorenean Nafarroako PAI Legearen aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak 2025eko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Steilas sindikatuak Auzitegi Gorenean Nafarroako PAI Legearen aurka aurkeztutako errekurtsoa ikusita:

Zer balorazio egiten duzu Steilas sindikatuak Auzitegi Gorenean Nafarroako PAI Legearen aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoa dela-eta?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurío Macaya

11-25/POR-00040. Galdera, desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak hurrengo osoko bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jasanezinak dira desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendako datuak, urteak joan dira legeak ezarritako epeak bete gabe. Departamentuak zer egingen du legea betetzeko?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/POR-00041. Galdera, etxeko ospitalizazioan ospitaleratutako pazienteendako telemedikuntza-proiektuari buruzkoa

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, etxeko ospitalizazioan ospitaleratutako pazienteendako telemedikuntza-proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hilaren 17an, Nafarroako Gobernu kideak eta administrazioko zuzendari nagusiak biltzen dituen Zuzendaritza Publikoaren Batzarrean, etxeko ospitalizazioan ospitaleratutako pazienteendako telemedikuntza-proiektu berri bat aipatu zuen Gobernu lehendakariak.

Honako hau galdetzen diogu Osasuneko kontseilariari: proiektu horrek eta, oro har, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Telemedikuntzako Estrategiak zer eragin izanen dute osasun-sistema publikoko profesionalengan eta pazienteengan?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

11-25/POR-00042. Galdera, EBren eta Mercosur-en arteko akordioak Nafarroako nekazaritzaren sektorean izanen duen eraginari buruzkoa

JAVIER OLLO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Ollo Martínez jaunak egindako galdera, EBren eta Mercosur-en arteko akordioak Nafarroako nekazaritzaren sektorean izanen duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Javier Ollo Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zenbait urte negoziatzen ibili eta gero, Europar Batasuna eta Mercosur akordio komertzial bat ixtear daude, lehen sektoreari dagokionez auerak sortuko lituzkeena, baina baita zalantzak ere. Kontseilariaren ustez, akordio horrek zer eragin izan dezake Nafarroako lehen sektorean?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Javier Ollo Martínez

11-25/POR-00043. Galdera, 2025etik 2029ra bitarteko bosturtekoaren oinarri-urtea gaurkotzeko epeei eta jarduketei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, 2025etik 2029ra bitarteko bosturtekoaren oinarri-urtea gaurkotzeko epeei eta jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer epe eta jarduketa darabil gogoan Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren 2025-2029 bosturtekoaren oinarri-urtea gaurkotzeari begira?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00045. Galdera, pentsioak igotzearekin zerikusirik ez duten neurriak aurrera ateratze aldera nafar pentsiodunak bahitu gisa erabiltzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, pentsioak igotzearekin zerikusirik ez duten neurriak aurrera ateratze aldera nafar pentsiodunak bahitu gisa erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak 150.000 pentsiodun nafar bahitu gisa erabili ditu, dekretu bakar batean pentsioak igotzearekin zerikusirik ez duten neurri sorta bat aurrera ateratze aldera. Zer iritzi duzu horri buruz?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00046. Galdera, jakiteko zein den gogobetetasun-maila Nafarroaren pertzepzio eta irudiari dagokienez

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, jakiteko zein den gogobetetasun-maila Nafarroaren pertzepzio eta irudiari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Chivite andrea, Nafarroako Gobernuak lehendakari zaren aldetik, zein da zure gogobetetasun-maila erkidego honen pertzepzio eta irudiari dagokienez?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00047. Galdera, FITUR 2025 azokari buruzkoa*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, FITUR 2025 azokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Daniel López Córdoba,

Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak 2025eko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Urtarrilaren 22tik 26ra bitarte (asteazkenetik igandera) ospatu da Madrilén Nazioarteko Turismo Azoka, eta Nafarroak, urtero bezala, bere pabilioia izan du bertan. Han aurkeztu dira 2025ean gure erkidegoko turismoari begira gauzatuko diren zenbait proiektu eta lan-ildo, bai erkidegoan bai udalengan.

Zer balorazio egiten duzu FITUR 2025ean izandako jende kopuruari, aurkeztutako proiektuek izandako harrerari eta, oro har, Nafarroako pabilioiak izandako onarpenari buruz?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-25/POR-00048. Galdera, omnibus izeneko Errege Lege-dekretuari buruzkoa*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, omnibus izeneko Errege Lege-dekretuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi duzu Diputatuen Kongresuak omnibus deituriko errege lege-dekretua onetsi ez izanari buruz?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/LEY-00007. 2023ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara (2024ko abenduaren 30ean, 150. zenbakian) 2023ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Txosten horretan akats bat dagoela ohartu baikara, aldizkarian honako azalpen-testu hau argitara dadila nahiko genuke:

Joan den abenduaren 30ean, Nafarroako Aldizkari Ofizialak 2023ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena argitaratu zuen.

4. orrialdean aipatzen da zer eskari parlamentario erabaki zuen aztertzea Kontuen Ganberak txosten horren kariatara. Ondotik doan eskaria, txostenean hori esaten bada ere, ez zuen Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak egin, baizik eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak: "Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikulua betetze-maila, txostenaren 5. gehigarriaren 5.5 atalean aztertzen dena".

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 17an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

